

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### LURRALDE OREKAREN SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 613/2019 Erabakia, urriaren 1ekoa. Onespena ematea Maider Murillo Treviño andrea izendatzeari Lurralde Orekaren Saileko diputatuaren konfiantzako idazkari kargu gisa, lanpostuaren titular Jaione Sáenz del Burgo Quintana ez dagoelako**

Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 8.11 artikuluan eta Foru Kargu Publikoen Jarduna arautzen duen uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauaren laugarren xedapenean jasorikoarekin bat etorritik, Foru Gobernu Kontseiluari dagokio diputatu nagusiaren edo dagokion foru diputatuaren proposamena entzun ondoren, foru aldundiko lanpostu zerrendan jasota dauden behin-behineko konfiantzako lanpostuak beteko dituztenak izendatzea.

Horregatik guztiagatik, Lurralde Orekaren Saileko foru diputatuak proposatuta, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 8.11 artikulua aitortzen dizkidan ahalmenak baliatuz, eta Foru Gobernu Kontseiluan gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honakoa

#### ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Maider Murillo Treviño izendatzea, behin-behineko langileek betetzekoa den Lurralde Orekaren Saileko foru diputatuaren idazkari lanposturako (kodea: 1322), Jaione Sáenz del Burgo Quintana lanpostuaren titularraren absentziagatik.

Bigarrena. Erabaki honek ondorioak izango ditu 2019ko urriaren 2tik aurrera.

Hirugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urriaren 1a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua*

**IRMA BASTERRA UGARRIZA**